



# Eskolaz kanpoko ekintzen gida

2025-2026



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA



ikastolen  
elkartea

# GAI ZERRENDA

<b>1. Eskolaz kanpoko ekintzak .....</b>	<b>3</b>
1.1. Sarrera .....	3
1.2. Eskaintza .....	4
<b>2. Ekintza artistikoak .....</b>	<b>5</b>
2.1. Arte tailerra .....	5
2.2. Antzerkia .....	6
2.3. Euskal dantzak .....	7
2.4. Txiki ritmoa .....	8
2.5. Dantza modernoak .....	9
2.6. Trikitixa eta panderoa .....	10
2.7. Zirkomotrizitatea .....	11
2.8. Zirkoa .....	12
<b>3. Kiroletako ekintzak .....</b>	<b>13</b>
3.1. Esku-pilota .....	13
3.2. Pala .....	14
3.3. Kirol anitza .....	15
3.4. Saskibaloia .....	16
3.5. Taekwondo.....	17
3.6. Yoga.....	18
<b>4. Hizkuntzetako ekintzak .....</b>	<b>19</b>
4.1. Ingelera .....	19
<b>5. Ekintzen prezioak .....</b>	<b>20</b>
<b>6. Informazio gehigarria .....</b>	<b>22</b>
6.1. Kontuan eduki beharrekoa .....	22
6.2. Hutsegiteak .....	23
6.3. Jarrera egokiak izateko irizpideak .....	24
6.4. Nora jo egoera bakoitzean .....	26



# 1. Eskolaz kanpoko ekintzak (EKE)



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 1.1 Sarrera:

Jarduera hauek eskola ordutegitik kanpo egiten dira, hautazkoak dira eta ez daude ebaluazio-prozesuaren barne. Halere, ikastolan bertan burutzen diren hezkuntza-ekintzak direnez, partaideek ikastolaren funtzionamendu- eta elkarbizitza-arauak bete beharko dituzte.

Gurean, ikasleen prestakuntza integrala osatzea da eskolaz kanpoko ekintzen helburu nagusia; horretarako banakako zein taldeko jarduerak eskaintzen dira: fisikoak, buru-jarduerak eta sortze-jarduerak. Horrez gain, ikasleen harremanak indartzeko ere balio dute.

# 1. Eskolaz kanpoko ekintzak (EKE)



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 1.2 Eskaintza:

ARTISTIKOAK	KIROLETAKOAK	HIZKUNTZAK
Arte tailerra	Esku-pilota	Ingelera
Antzerkia	Pala	
Euskal dantzak	Kirol anitza	
Txiki ritmoa	Saskibaloia	
Dantza modernoa	Taekwondo	
Trikitixa eta Panderoa	Yoga	
Zirkomotrizitatea		
Zirkoa		

## 2. Ekintza artistikoak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

### 2.1 Arte tailerra

Ekintza honen bitartez, sormenaren bidea zabaltzea bilatzen dugu: talde jardueraren nahiz jarduera indibidualaren bidez, irudimena eta artea lantzea du helburu.

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH osoa
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (arratsaldean) Osteguna
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 12



## 2. Ekintza artistikoak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

### 2.2 Antzerkia

Adierazpen dramatikoaren hastapenak. Helburu nagusia honako hau da: umeen adierazmen-gaitasuna bere atal guztietan lantzea; hau da, ahozko adierazmena eta gorputz jarrera lantzea.

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH3tik LH6ra
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (eguerdian) Ostirala
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 18



## 2. Ekintza artistikoak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

### 2.3 Euskal dantzak

Ekintza horren bitartez, umeak gure kulturara hurbiltzea eta euskal dantzak modu alai eta entretenigarri batean ikastea bilatzen dugu.

<b>Parte-hartzaileak</b>	H4tik HH5era
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (arratsaldean) Astelehena
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 15



## 2. Ekintza artistikoak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

### 2.4 Txiki ritmoa

Musika eta dantzaren bidez, psikomotrizitatea eta koordinaketa landu eta sentimendu eta emozioak kontrolpean azaleratzen ikastea du helburu. Guzti hau aisialdi eta hezigarri esparru baten barruan.

<b>Parte-hartzaileak</b>	HH4tik HH5era
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (arratsaldean) Asteazkena
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 12 (taldeko)



## 2. Ekintza artistikoak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

### 2.5 Dantza modernoak

Dantza garaikide edo modernoan, haurrek bestelako dantzak eta teknika ezberdinak ikasiko dituzte, hala nola, hip-hop, funky...

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH1etik LH6era
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (arratsaldean) Ostirala
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 16 (taldeko)



## 2. Ekintza artistikoak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

### 2.6 Trikitixa eta panderoa

Trikitixak eta panderoak garrantzi handia dute gure herriko folklorean. Kanta herrikoien bidez, gure herriko kultura ezagutzea da helburua.

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH3tik aurrera
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat, 30 min. (eguerdian) Osteguna
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 15



## 2. Ekintza artistikoak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

### 2.7 Zirkomotrizitatea

Psikomotrizitatea oinarri duen zirku ikastaroa da. Bertan haurrek beren gaitasunetara erabat egokituta eta jolasean babestuz, zirkuko diziplinak ikasiko dituzte: orekak, malabareak, trapezioa, oihalak.

<b>Parte-hartzaileak</b>	HH4 eta HH5
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (arratsaldean) Astearte edo Ostegun
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 12



## 2. Ekintza artistikoak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

### 2.8 Zirkoa

Ikastaro honen helburua ikasleek zirku-diziplina guztiak lantzea da: orekak, malabareak, akrobazia etab.

Ikastaro hauetan, pertsona bakoitzak bere adierazpen fisikoa eta artistikoa garatuko du, bere muga fisiko, psikiko edo mentalak kontuan hartu, ezagutu eta onartuz.

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH osoa
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (arratsaldean) Astelehena edo Ostirala
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 12



# 3 Kiroletako ekintzak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 3.1 Esku-pilota (Lagun onak)

Pilota-munduaren hastapena. Umeez, jolasen bitartez, esku pilotan hasi eta arauak ikasiko dituzte. Aldi berean, jokia hobetzeko teknikak ere landuko dituzte.

<b>Parte-hartzaileak</b>	HH5 / LH1etik LH2ra
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (arratsaldean) HH5 Asteartea LH1-LH2 Osteguna
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 15



# 3 Kiroletako ekintzak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 3.2 Pala (Erdur Pilotan)

Neska-mutilak pilota munduan murgiltzea, batez ere palan. Adinari egokitutako jolasen bitartez talde-giro polita mantentzea; eta era berean, pala-jokoa lantzea.

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH2tik LH6ra
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bat (arratsaldean) Asteazkena
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 12



# 3. Kiroletako ekintzak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 3.3 Kirol anitza

Jarduera honetan umeen trebetasun motorrak garatzen saiatuko gara, beraien ekintzen kudeaketa autonomoa ahalbidetzeko. Horrela, etorkizunean egin nahi dituzten kirolak ikasteko prozesuan, proposatuko zaien edozein ekintza motor egiteko gai izango dira.

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH1etik LH2ra
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bi (arratsaldean) Asteartea eta Osteguna
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 10 eta gehienez 15 (taldeko)



# 3. Kiroletako ekintzak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 3.4 Saskibaloia

SASKIBALOIA baliatuz, umeak kirolera hurbilduko dira. Larunbatetan, beste eskoletako umeekin partiduak egiten dira, praktikatzeko eta araudia sakontzeko.

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH3tik LH6ra
<b>Saio kopurua</b>	Astean saio bi (arratsaldean) Astelehena eta Ostirala
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 10 eta gehienez 15



# 3. Kiroletako ekintzak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 3.5 Taekwondo

Arte modernoa eta jatorri korearreko kirol olinpikoa da. Defentsa pertsonaleko teknikak eta oinarrizko hezkuntza-balioak uztartzen ditu.

<b>Parte-hartzaileak</b>	HH5/LH1etik LH4ra.
<b>Saio kopurua</b>	HH5: Ostirala (arratsaldean) LH1-LH4: Astelehena (Arratsaldean)
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 12



# 3. Kiroletako ekintzak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 3.6 Yoga

Yoga jarduera fisiko eta mental osoa da, gorputza eta burua harmonian lantzen dituena. Erlaxazioa, arnasketa kontrola eta kontzentrazioa bultzatzen ditu, hezkuntza-balio osasungarriak uztartuz.

<b>Parte-hartzaileak</b>	LH3tik-LH6ra
<b>Saio kopurua</b>	LH3-LH4: Asteazkena (Eguerdian) LH5-LH6: Asteartea (Eguerdian)
<b>Parte-hartzaile kopurua</b>	Gutxienez 8 eta gehienez 12



# 5. Hizkuntzetako ekintzak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 5.1 Ingelera (Lynx)

Lynx Idiomasek ikaskuntza aktiboa ingelesez egitasmoa garatu du Andramari Zornotzako Ikastolarekin batera azken 19 urtetan. Ohiko sistematik kanpo, esperientzia eta aukera berriak zabaltzeko. Ikasleek atazak burutuko dituzte, hizkuntza aktibatzen eta praktikatzeko. Talde bakoitzaren helburuak adinari egokituko dizkiogu.

**Parte-hartzaileak**

HH4tik LH6ra

**Saio kopurua**

Astean saio bi (eguerdian)

**Parte-hartzaile kopurua**

Gutxienez 8 eta gehienez 12 (taldeko)



# 6. Ekintzen prezioak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

EKINTZA	MATRIKULA	HILEKO KUOTA	KUOTA KOPURUA
Arte tailerra	40 €	15 €	8
Antzerkia	40 €	15 €	8
Euskal dantzak	40 €	15 €	8
Txiki ritmoa	40 €	18 €	8
Dantza modernoa	40 €	18 €	8
Trikitixa eta panderoa	40 €	15 €	8
Zirkomotrizitatea	40 €	25 €	8
Zirkoa	40 €	25€	8

# 6. Ekintzen prezioak



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

EKINTZA	MATRIKULA	HILEKO KUOTA	KUOTA KOPURUA
Esku-pilota	40 €	10 €	8
Pala	40 €	10 €	8
Kirol anitza	40 €	15 €	8
Saskibaloia	40 €	15 €	8
Taekwondo	40 €	18 €	8
Yoga	40 €	23 €	8
Ingelera	35 €	36 € (HH4-LH4) 38 € (LH5-LH6)	9

# 7. Informazio gehigarria



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 7.1 Kontuan eduki beharrekoa

- **Ekintza guztietan** taldea osatu ahal izateko **gutxieneko kopurua** behar izango da.
- **Behin matrikula eginda:** ekintza **hasi baino lehenago** baja emanez gero, **%50a itzuliko da**. **Ekintza hasita** badago, **ez da dirurik itzuliko**. Baja ikastolak egindako aldaketen ondorioz bada, %100a itzuliko da.
- Behin **ekintza hasita**, jardunaldiaren **iraunaldi osoa ordaindu** beharko da.
- Matrikula eta hileko kuotak ikastolatik pasatuko dira, **matrikula ekainean** eta **kuotak, urritik maiatzera**.
- **Eskaintza** behin-behinekoa da. Osatzen diren taldeen arabera, **aldatu egin daiteke**.
- **Lehiaketa eta partiduetan**, ezinbestekoa da **EKIPAMENDUA ETA IKASTOLAKO KIROL JERTSEA JANTZITA** eramatea.
- **Entrenamenduetan gurasoak ezin** izango dira kirol instalazioetan egon.
- Ekintza guztiak **urrian hasi eta maiatzean amaituko** dira (Lynx izan ezik).
- Ekintza batean **ume asko badaude**, iaz ekintza berdinean **ibili zirenek** izango dute **lehentasuna** eta partaide **berriak zozketa** bidez aukeratuko dira.

# 7. Informazio gehigarria



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 7.2 Hutsegiteak

- **Materiala apurtzea**, apropos edo egoki ez erabiltzeagatik.
- Besteen **sentimenduak mintzea**.
- Ikaskideak **jotzea edo/eta mehatxuak** egitea.
- **Begiraleekiko errespetu falta izatea**. Halakotzat joko da kideei min egitea dakarren guztia (sentimenduak mintzea, jotzea edo mehatxu egitea), bai eta hezitzaileak emandako aginduei muzin egitea ere.
- **Hutsegiteak arinak edo larriak** izan daitezke. Eskolaz kanpoko arduradunak erabakiko du, kasuan-kasuan, nolako hutsegitea izan den.
- **Hutsegitea arina bada, ahozko ohartarazpena egingo zaio.**
- **Hutsegite arinak hiru bider errepikatu edo hutsegite larria** eginez gero: partidu bat jokatu barik edota beste zigorren bat ezarriko zaio, jardueraren arabera.
- **Hutsegitea oso larria bada, aste oso bat ekintzetan parte hartu barik.**
- Hutsegitea larria **behin eta berriro errepikatuz gero, umea ekintzetatik kanporatzea aztertuko** da.

# 7. Informazio gehigarria



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 7.3 Jarrera egokiak izateko irizpideak

- **Nahitaezkoa da entrenamenduetara etortzea:** noiz edo noiz falta izanez gero edo beranduago helduz gero, abisatu aldez aurretik Amaiari.
- Entrenamenduetarako **arropa egokia ekarri** (kirol arropa, kiroleko oinetakoak, ...) bai eta entrenamendu osteko **dutxarako beharrezko guztia ere.**
- Partiduetara **eraman beharreko arropak:**
  - Ikastolako ekipamendua
  - Ikastolako kirol-jertsea
- **Nahitaezkoa da materiala** (konoak, baloiak...) **zaintzea**, guztiona guztiontzat da eta.

# 7. Informazio gehigarria



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 7.3 Jarrera egokiak izateko irizpideak

- Entrenamendu eta partiduetarako **jarrera**.
  - **Gogoz eta intentsitatez** jardun.
  - **Adi egon** entrenatzaileak esaten duenari eta jokoari.
  - Egin **protestarik gabe** eskatutako ariketak (bakarkakoak zein taldekoak).
  - Talde lana denez, **taldetzat jardun** (lagundu eta aholkatu ez dakienari eta ikasi dakitenengandik).
  - Jokalari **guztiek denbora berdina jokatuko** dute; beraz, ezin da horren inguruko kexurik egin.
  - **Arbitroari ezin zaio protestarik** egin.
  - Partiduak amaitutakoan, **joan beste taldekoak agurtzera**.
  - **Gainerakoak** (gure taldekideak, beste taldeetako jokalaria, entrenatzaileak, arbitroak, ...) **errespetu osoz tratatu** behar dira.

# 7. Informazio gehigarria



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

## 7.4 Nora jo egoera bakoitzean

NON gertatu da istripua?	NORA eraman?	ZER egin behar da?
IKASTOLAN Jolasean	Gure aseguruak hartzen duen osasun-zentroaren batera	Osasun-zentrora joan ondoren, ikastolari jakinarazi, berak parte tramatatu dezan.
	Osasun-zentro publikoren batera	Eraman Osakidetzako txartela *
IKASTOLAN zein KANPOAN Kirola praktikatzerakoan	Gure aseguruak hartzen duen osasun-zentroaren batera	Osasun-zentrora joan ondoren, ikastolari jakinarazi, berak parte tramatatu dezan
	Osasun-zentro publikoren batera	Eraman Osakidetzako txartela *
ESKOLA KIROLA	Osasun-zentro publikoren batera	Eraman Osakidetzako txartela (osasun publikoak bere gain hartzen ditu Eskola Kirola)

\* Istripua ikastola barruan gertatu dela esanez gero, osasun-zentroak familiari zerbitzua kobratuko dio, nahiz eta osasun-zentro publikoa izan.